

AÑANAKO GATZ HARANA FUNDAZIOA
FUNDACIÓN VALLE SALADO DE AÑANA

2024KO MEMORIA
FUNDACIÓN VALLE SALADO DE AÑANA
AÑANAKO GATZ HARANA FUNDAZIOA

1.- FUNDAZIOAREN JARDUERA

1.1.- Eraketa

Memoria honek hizpide duen erakundea, “Fundación Valle Salado de Añana - Añanako Gatz Harana Fundazioa”, 2009ko apirilaren 30ean eratu zen, eta haren egoitza hemen ezarri zen: Probintzia plaza z.g., Gasteiz. 2010eko urtarrilaren 22an, Gesaltza Añanako Miguel de Tuesta plazako 1. zenbakira (PK: 01426) lekualdatu zuen egoitza. 01426.

2009ko ekainaren 1ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu zen, F-245 erregistro-zenbakiarekin.

1.2.- Lege-araubidea

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legeari men egiten dio, baita Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuari ere.

1.3.- Interes orokorreko xede nagusia

Fundazioaren xedea eta interes orokorreko helburua da Añanako Gatz Harana eta haren ingurunea sendotu, zaharberritu eta osorik birgaitzeko bide ematea. Ingurune horrek Gesaltza Añanako udalerrian dauden “Ikkitak edo Miozenoko arrastoak” direlakoak hartzen ditu barne berariaz.

Era berean, Añanako Gatz merkatutzatzea eta Añanako Gatz Haranaren eta haren inguruaren sustapen eta zabalkunde turistikoa ere badira fundazioaren xedearen atal bat da.

Helburu horren bidez, fundazioak kulturaren eta ingurumenaren sustapena bultzatzen du, horrela interes orokorreko xedeak hobeto beteko dituelakoan.

Fundazioak eskura dituen baliabideak erabiliko ditu aipatutako xedeak betetzeko. Hain zuzen, patronatuak urtero onartzen dituen memoriak eta programak kontuan izanik, jarduera hauek garatuko ditu, zuzenean edo beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuekin elkarlanean:

- Programak, egutegiak eta esku hartzeak onartzea, dagokion finantzaketa planaren arabera.
- Esku-hartzeetarako beharrezkoak diren gauzatze-proiektuak kontratatzea.
- Esku-hartzeetarako beharrezkoak diren obrak eta lanak kontratatzea.
- Esku-hartzeetarako beharrezkoak diren obren eta lanen burutzapenaren jarraipena egitea eta horiek kontrolatzea.
- Esku-hartzeetarako beharrezkoak diren obrak eta lanak finantzatzea.
- Xede duen jarduera garatzeko tresna materialak sortzen laguntzea.
- Fundazioaren xedeen esparruan eratutako baliabide materialak kudeatzea.


Fundazioaren xedea betetze aldera patronatuak egokitzen jotzen dituen gainerako ekintzak gauzatzea, eta bereziki Fundazioaren xedea eta helburuak zabaltzeko ekintza guztiak.

Jarduera horiek mesede egiten dion edozein pertsona natural edo juridiko izan ahalko da Fundazioaren onuradun, bereizkeriarik gabe.

Patronatuak onuradunak izendatu behar dituen eta onuradun horiek pertsona juridikoak direnean, Fundazioaren laguntza (materiala, ekonomikoa, irakaskuntza arlokoa eta Fundazioaren ezagutzen gainerakoa) merezi duten erakundeak eta entitateak aukeratzeko dituen, horretarako, pertsona horiek egiten duten jardura eta duten ospea hartuko ditu kontuan.

Alabaina, pertsona fisikoak direnean, Fundazioak, onuradunak izendatu baino lehen, deialdia egin eta laguntzak emateko arauak eta prozedura ezarriko ditu. Horrelakoetan, eskatzaileen merezimendua eta gaitasuna hartuko dira irizpidetzat.

Nolanahi ere, Fundazioak inpartzialtasunez eta bereizkeriarik egin gabe izendatuko ditu onuradunak.



AÑANAKO GATZ HARANA FUNDAZIOA
FUNDACIÓN VALLE SALADO DE AÑANA

1.4.- Ekitaldian egindako jarduerak

Ekitaldi honetan, Fundazioak jarduera propio hauek garatu ditu bere helburuak erdiesteko:

Gatz Harana berreskuratu eta zaintzeko jarduera

Kultur, turismo- eta sustapen-jarduera

Gatza ekoitzi eta merkaturatzeko jarduera

2.- URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

2.1.- Irudi zehatza

Erantsitako 2024 ekitaldiko urteko kontuak erakundearen 2024ko abenduaren 31ko kontabilitate-erregistroetan oinarrituta formulatu ditu Batzorde Betearazleak. Horietan, xedapen hauetan bildutako kontabilitate-printzipioak eta balioespen-irizpideak aplikatu dira: urriaren 24ko 1491/2011 Errege Dekretua, Kontabilitate-plana irabazteko xederik gabeko erakundeetara egokitzeko arauak eta irabazteko xederik gabeko erakundeen Jarduketa-planaren eredua onartzen dituen (IAGE KP), eta 2013ko martxoaren 26ko Ebazpenak, irabazteko xederik gabeko erakundeen Kontabilitate-plana eta irabazteko xederik gabeko erakunde txiki eta ertainen Kontabilitate-plana onartzen dituztenak. Aipatutako arauak berariaz aldatzen ez duten guztirako, 1514/2007 Errege Dekretua, Kontabilitate-plan Nagusia onartzen duena, eta kontabilitate-arloan indarrean dauden gainerako legezko xedapenak aplikatuko dira. Urteko kontuek finantza-egoeraren eta emaitzen irudi zehatza erakusten dute.

Gainera, aurkezteko asmoz, 8/2014 Foru Dekretuak onetsitako eredua hartu da kontuan.

Ez dago salbuespeneko arrazoirik irudi zehatza erakuste aldera kontabilitate-arloko legezko xedapenak ez aplikatzeko.

Fundazioaren patronatuak onartu beharko ditu honekin batera doazen urteko kontuak, eta aldaketarik gabe onartuko dituela uste da.

Aurreko ekitaldiko urteko kontuak 2024ko martxoaren 27an formulatu zituen Batzorde Betearazleak, eta 2024ko apirilaren 25an onartu zituen Patronatuaren Batzordeak.

2.2.- Kontabilitate-printzipioak

Urteko kontu hauek egiteko aplikatu diren kontabilitate-printzipio eta -arauak 2.1 atalean aipatutako araudian bildutakoak dira. Zehatz-mehatz, memoria honen 4. Oharrean laburbiltzen diren balioespen-arauei jarraitu zaie. Ondarean, finantza-egoeran eta emaitzetan eragina duten nahitaezko kontabilitate-printzipio guztiak aplikatu dira urteko kontu hauek egiteko.


2.3.- Informazioaren erantzukizuna, balioespenaren funtsezko alderdiak eta ziurgabetasunaren zenbatespena

Funtzionamenduan dagoen erakundearen printzipioa betez egin ditu Fundazioak bere finantza-egoerak; izan ere, ez da egon hurrengo ekitaldiko aktibo edo pasiboen balioan aldaketa esanguratsuak eragin ditzakeen arrisku garrantzitsurik.

Fundazioaren finantzaketaren funtsezko osagai bat ekarpen publikoak dira, bai bazkide sortzaileenak bai beste erakunde batzuenak. Fundazioaren jardueraren garapena lortzen diren dirulaguntzetara egokitzen da. Ekitaldi bakoitzean, Patronatuak dirulaguntzengatiko diru-sarrerara konprometituen arabera onartzen ditu obrak eta jarduerak.

2024ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion Fundazioaren urteko kontuetan, Zuzendaritza-batzordeko kideek egindako zenbatespenak erabili dira zenbaitetan, hor erregistratutako aktibo, pasibo, diru-sarrera, gastu eta konpromiso batzuk balioesteko. Batez ere, kalkulu horiek honakoei dagozkie:

- Emandako dirulaguntzen aplikazioa.
- Aktibo ukiezinen, materialen eta Ondare Historikoko ondasunen bizitza baliagarria.
- Ixtean izandako auziak, hornidurak, konpromisoak, aktiboak eta pasibo kontingenteak ebaluatzea.
- Kredituen narriadura, merkataritza-eragiketengatik.



AÑANAKO GATZ HARANA FUNDAZIOA
FUNDACIÓN VALLE SALADO DE AÑANA

Nahiz eta zenbatespen horiek urteko kontu hauek egiteko unean aztertutako egitateen gainean zegoen informaziorik onena oinarri hartuta egin ziren, baliteke etorkizunean hurrengo ekitaldi batzuetan (gorantz edo beherantz) aldatzera behartzen duten gertakariak jazotzea. Hori etorkizunean egingo litzateke, zenbatespen aldaketaren ondorioak aitortuz etorkizuneko emaitzen kontuetan.

2.4.- Informazioaren alderaketa

Merkataritzako legediaren arabera, Fundazioko Zuzendaritza-batzordeko kideek, balantzeko, emaitzen kontuko eta memoriako partida bakoitzari dagokionez, itxi den ekitaldiari dagozkion zifrak ez ezik aurreko ekitaldikoak ere aurkeztu dituzte, alderatu ahal izateko.

Fundazioa legez behartuta dago 2024 ekitaldiko kontuen auditoretza egitera, 2023an egin zuen modu berean. Bi ekitaldietako kontuak ikuskatuak izan dira.

2.5.- Kontabilitate-irizpideen aldaketak, akatsak eta kontabilitate-zenbatespenak:

2024 ekitaldian ez da kontabilitate-irizpideetan aldaketa esanguratsurik egon aurreko ekitaldian aplikatutako irizpideekin alderaturik; era berean, kontabilitate-zenbatespenetan ere ez da ekitaldi honi eragiten dion edo aurreikuspenen arabera etorkizuneko eragin ahal dien aldaketa esanguratsurik egon.

Gainera, 2024 ekitaldiko urteko kontuek ez dute jasotzen ekitaldian antzemandako akatsen ondorioz egindako doikuntzarik.

2.6.- Garrantzi erlatiboa

Finantza-egoeretako edo beste gai batzuetako partidei buruzko memoria honetan xehatu beharreko informazioa zehaztean, Fundazioak 2024 ekitaldiko urteko kontuei lotutako garrantzi erlatiboa hartu du kontuan, Kontabilitate-plan Orokorra irabazteko xederik gabeko erakundeetara egokitzeko arauen kontzeptu-esparruaren arabera.

3.- EKITALDIKO SOBERAKINA

Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea denez, ekitaldian sortzen den soberakin positiboa edo negatiboa hurrengo ekitaldietan erabili edo konpentsatuko da, kasuan-kasuan.

Hona hemen Batzorde Betearazlek egindako 2024 ekitaldiko soberakinaren banaketa-proposamena (eurotan), Patronatuak onar dezan aurkeztuko dena:


Banaketa oinarria	2024.ko Ekitaldia
Ekitaldiko soberakina	0,00
GUZTIRA	0,00

Aplikazioa	2024.ko Ekitaldia
Gerakina	0,00
GUZTIRA	0,00

4.- ERREGISTRORAKO ETA BALIOESPENERAKO ARAUAK

Urteko kontu hauek formulatzeko, kontabilitate-arloan indarrean dauden legezko xedapen guztiak aplikatu dira, bereziki, nahitaezko kontabilitate-printzipioak betetzeari buruzkoak.

Horretarako, Fundazioaren ondarearen, finantza-egoeraren eta lortutako emaitzen irudi zehatza erakusteko lehentasunezko helburuarekin bat datozen kontabilitate-printzipioetan oinarrituta garatu da enpresaren kontabilitatea.



AÑANAKO GATZ HARANA FUNDAZIOA
FUNDACIÓN VALLE SALADO DE AÑANA

4.1.- Ibilgetu ukiezina:

Fundazioaren balantzea osatzen duten ibilgetu-elementu guztiek ez dute eskudiru-fluxurik sortzen. Hauek dira eskudiru fluxurik sortzen ez duten ibilgetu ukiezinaren ondasunak: mozkin komertziala sortzeaz bestelako xederen batengatik edukitzen direnak, hala nola aktibo horiek sortzen dituzten eta herritarrei mesede egiten dieten fluxu ekonomiko sozialak, hau da, haien onura soziala edo zerbitzu ahalmena.

Ibilgetu materialen eta Ondare Historikoan sartutako Ondasunak eskurapen-prezioan edo ekoizpen-kostuan balioetsi dira, dagozkien amortizazio metatuak eta ezaguna den balio-narriaduragatiko edozein galera kenduta.

Fundazioak aktibo horien balio erregistratuan gertatu ahal izan den eta narriaduraren ondoriozkoa den edozein galera aitortzen du. Aktibo horien narriaduragatiko galerak eta, hala badagokio, aurreko ekitaldietan erregistratutako narriaduragatiko galeren berreskurapenak aitortzeko irizpideak aktibo materialetarako aplikatutakoen antzekoak dira.

Aktibo ukiezinak linealki amortizatzen dira, bizitza baliagarri zenbatetsiko urteen arabera; lauzpabost urtekoa dela jo da.

Lagatako aktiboen gaineko eskubideak erregistratu dira; ondasunaren lagapen-denboran oinarrituta amortizatzen dira.

4.2.- Ibilgetu materiala eta ondareko ondasunak:

a) Kostua

Fundazioaren balantzea osatzen duten ibilgetu-elementu guztiek ez dute eskudiru-fluxurik sortzen. Hauek dira eskudiru-fluxurik sortzen ez duten ibilgetu materialaren edo Ondare Historikoko Ondasunak: mozkin komertziala sortzeaz bestelako xederen batengatik edukitzen direnak, hala nola aktibo horiek sortzen dituzten eta herritarrei mesede egiten dieten fluxu ekonomiko sozialak, hau da, haien onura soziala edo zerbitzu ahalmena.

Ibilgetu materialean eta Ondare Historikoan sartutako ondasunak eskurapen-prezioan edo ekoizpen-kostuan balioetsi dira, dagozkien amortizazio metatuak eta ezaguna den balio-narriaduragatiko edozein galera kenduta. Eskurapen-prezioak edo ekoizpen-kostuak ondasuna funtzionatzeko moduan jarri arte nahitaez egiten diren gastu gehigarriak hartzen ditu barne.

Xede den ondasunaren bizitza baliagarria edo ahalmen ekonomikoa areagotzen duten zabalkuntza-, ordezkapen- edo berritze-kostuak ibilgetu materialaren zenbateko handien gisa kontabilizatzen dira eta, ondorioz, ordezkatu edo berritutako elementuak kontabilitatetik kentzen dira. Era berean, sortzapen-printzipioa betez, mantentzeko, zaintzeko eta konpontzeko aldian behineko gastuak egiten diren ekitaldiko kostu moduan egozten zaizkie emaitzei.

Ekitaldian ez da Batzorde Betearazlearen iritziz ibilgetu materialaren edo Ondare Historikoaren handitze, modernizazio edo hobekuntzatzat jo daitekeen partidarik egon.

Fundazioak ez du bere aktiboko ondasunak desegin, kendu edo birgaitzeko konpromisorik. Horregatik ez dira aktiboetan etorkizuneko betekizun horietarako balioak zenbatu.


Aktibo bat besterendu edo kentzean gertatzen den mozkin edo galera kalkulatzeko, aktiboaren salmentaren mozkinaren eta kontabilitate-zenbatekoaren arteko diferentzia atera behar da; emaitzen kontuan jasotzen da.

Aktibo horien narriaduragatiko galerak eta, hala badagokio, aurreko ekitaldietan erregistratutako narriaduragatiko galeren berreskurapenak aitortzeko irizpideak 4.3. Oharrean zehazten dira.

Fundazioak ez du bere ibilgeturako lanik egin.

b) Amortizazioak

Amortizazioak modu sistematiko eta zentzudunean ezarri dira, ondasunen bizitza baliagarriaren eta hondar-balioaren arabera, funtzionamendu, erabilera eta gozamena direla medio izan ohi duten balio-galera kontuan izanik. Bestalde, eragin ahal dien zaharkitze tekniko edo komertziala ere hartu da aintzat. Ibilgetu materialaren elementu baten zati bakoitza modu independente eta linealean amortizatu da:



AÑANAKO GATZ HARANA FUNDAZIOA
FUNDACIÓN VALLE SALADO DE AÑANA

	Zenbatetsitako bizitza baliagarriko urteak
Eraikinak eta eraikuntzak	19-50
Instalazio teknikoak eta makineria	5-10
Tresnak	3-4
Beste instalazio batzuk	5-15
Altzariak eta tresneriak	6-7
Informazio-prozesuetarako ekipamenduak	4
Bestelako ibilgetu materiala	5-10

4.3.- Aktibo material eta ukiezinen balio-narriadura:

Martxoaren 25eko EHA/733/2010 Aginduak, inguruabar jakin batzuetan jarduten duten enpresa publikoen kontabilitate alderdiak onesten duenak, ezarritakoaren arabera, Fundazioaren ibilgetua osatzen duten elementuak eskudiru-fluxurik sortzen ez duen aktibotzat jotzen dira, etekin komertziala sortzeaz bestelako xede batekin edukitzen direlako, hala nola aktibo horiek sortzen dituzten eta herritarrei mesede egiten dieten fluxu ekonomiko sozialak, hau da, haien onura soziala edo zerbitzu ahalmena.

Agindu horren xedapenekin bat etorritik, Fundazioak gutxienez ekitaldi bakoitzaren amaieran ebaluatzen du haren ibilgetu ukiezin eta materialaren eta haren Ondare Historikoko ondasunen balio-narriadurako zantzurik, aktibo horien balio berreskuragarria kontabilitate-balioa baino txikiagoa den zenbateko batera murrizten duenik, badagoen. Zantzuren bat egonez gero, aktiboaren balio berreskuragarria zenbatesten da, balio-narriaduragatiko galera posiblearen irismena zehazteko. Horretarako, arrazoiko balioaren (salmenta kostuak kenduta) eta erabilerako balioaren arteko balio handienari esaten zaio zenbateko berreskuragarri. Froga hoberik egon ezean, eskudirurik sortzen ez duen aktibo baten, ustiapen-unitate baten edo zerbitzu baten erabilerako balioa zehazteko, balioa galdu duen birjarpen-kostua hartzen da oinarri.

Eskudiru-fluxurik sortzen ez duten aktiboen narriadurarik badagoen aktibo bakoitza banaka aztertuta ebaluatzen da. Hala ere, banaka aztertutako aktibo baten zerbitzu ahalmenaren identifikazioa begien bistakoa ez denean, Fundazioak dagoen ustiapen-unitatearen edo zerbitzuaren zenbateko berreskuragarria zehazten du.

Aurreko ekitaldietan aktibo batean aitortutako narriaduragatiko galerak itzuli egiten dira baldin eta zenbatespenetan haien zenbateko berreskuragarria aldatzen bada; hortaz, aktiboaren balioa igo egiten da, aktiboak saneamendua egin ez balitz izango zuen kontabilitate-balioa muga izanik.

Fundazioko Batzorde Betearazleko kideen iritziz, aktiboen kontabilitate-balioa ez da horien balio berreskuragarria baino handiagoa; beraz, 2024 eta 2023 ekitaldietan ez da aktiboen narriaduragatiko galerarik egon.

4.4.- Finantza-tresnak:


Fundazioak enpresa batean finantza aktibo bat eta, aldi berean, beste enpresa batean finantza pasibo bat edo ondare-tresna bat sorrarazten dituzten kontratuak ditu erregistratuta finantza-tresnen kapituluan. Beraz, arau hau finantza-tresna hauei aplikatuko zaie:

A) Aktibo finantzarioak:

- Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk.
- Eragiketa komertzialen kredituak: bezeroak eta hainbat zordun;
- Hirugarrenei emandako kredituak: emandako finantza-maileguak eta -kredituak, ezohiko aktiboak saltzetik sortutakoak barne;
- Beste finantza aktibo batzuk: kreditu-erakundeetako gordailuak, langileei emandako aurrerakin eta kredituak, eratutako gordailuak eta fidantzak, kobratzeke dauden dibidenduak eta ondare propioko tresnen gainean exijitutako ordainketak, esaterako.

b) Pasibo finantzarioak:

- Eragiketa komertzialek eragindako zordunketak: hornitzaileek eta hartzekodunek;
- Kreditu-erakundeekiko zorrak;
- Ezaugarri bereziak dituzten zorrak, eta



ÑANAKO GATZ HARANA FUNDAZIOA
FUNDACIÓN VALLE SALADO DE AÑANA

– Beste finantza pasibo batzuk: hirugarrenekiko zorrak, hala nola kreditu-erakundeak ez diren pertsona eta enpresengandik jasotako finantza-mailegu eta kredituak, ezohiko aktiboen erosketan sortutakoak barne.

c) Ondare propioko tresnak: funts propioen barruan sartzen diren finantza-tresna guztiak, hala nola Fundazioaren zuzkidura.

4.4.1.- Epe luzerako eta motzerako finantza-inbertsioak

a) Kostu amortizatuko aktibo finantzarioak.

Aktibo finantzario bat kategoria honetan sartzen da, baita merkatu antolatu batean negoziatzeko onartuta dagoenean ere, baldin eta enpresak inbertsioari kontratua gauzatzetik eratorritako eskudiruen fluxuak jasotzeko helburuarekin eusten badio, eta aktibo finantzarioaren kontratu-baldintzek, zehaztutako datetan, eskudiru-fluxuak sortzen badituzte, printzipalaren kobrantzak eta egiteke dagoen printzipalaren zenbatekoaren gaineko interesak baino ez direnak. Printzipalaren kobrantzaren eta egiteke dagoen printzipalaren zenbatekoaren gaineko interesa baino ez diren kontratuzko eskudiru-fluxuak mailegu arrunt izaera duen akordio baten berezkoak dira, eragiketa zero interes-tasan edo merkatutik beherako interes-tasan adostearen kalterik gabe. Oro har, kategoria honetan sartzen dira eragiketa komertzialengatiko kredituak (kobrantza geroratu duen enpresaren trafiko-eragiketengatik ondasunak saltzean eta zerbitzuak ematean sortzen diren aktibo finantzarioak), eta eragiketa ez-komertzialengatiko kredituak, ondare-tresnak edo deribatuak ez izan arren merkataritza-jatorrikoak ez diren aktibo finantzarioak alegia, horien kobrantzak zenbateko jakin edo erabakigarrikoak badira, eta enpresak emandako mailegu- edo kreditu-eragiketetatik badatoz. Hau da, kategoria honen barruan egongo lirateke kobratu beharreko maileguak eta kontuak, bai eta zorra adierazten duten baloreak ere, epemuga finkatuta dutenak, zenbateko jakin edo erabakigarriko kobrantzak, merkatu aktibo batean negoziatzen direnak eta sozietateak epemugara arte mantentzeko asmoa eta gaitasuna dituenak.

- Hasierako balorazioa: hasieran arrazoizko balioaren arabera balioesten dira, gehi zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuak. Hala ere, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten eta kontratuzko interes-tasa espliziturik ez duten eragiketa komertzialengatiko kredituak, langileei emandako kredituak, kobratu beharreko dibidenduak eta ondare-tresnei buruz eskatutako ordainketak, horien zenbatekoa epe laburrean jasotzea espero bada, balio nominalaren arabera balioetsi ahal izango dira, eskudiru-fluxuak ez eguneratzearen eragina esanguratsua ez denean.

- Ondorengo balorazioa: kostu amortizatuan egiten da eta sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuz. Dena dela, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten kredituak, baldin eta, aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera, hasieran balio nominalean balioesten badira, zenbateko horretan balioetsiko dira, narriatu ez badira behintzat. Aktibo finantzario baten kontratuko eskudiru-fluxuak jaulkitzailearen finantza-zailtasunen ondorioz aldatzen direnean, balio-narriaduragatiko galera kontabilizatu behar den aztertuko du enpresak.


- Narriadura: Fundazioak dagozkion narriadurak erregistratzen ditu, kobratzeko kontuetatik berreskuratu beharreko zenbatekoaren eta erregistratuta dauden liburuetaiko balioaren artean dagoen aldeagatik. Gutxienez ekitaldia ixtean, beharrezkoak diren balio-zuzenketak egiten dira, baldin eta ebidentzia objektiboa badago kategoria honetan sartutako aktibo finantzario baten edo antzeko arrisku-ezaugarriak dituzten aktibo finantzarioen talde baten balioa narriatu egin dela hasierako aintzatespenaren ondoren gertatu den gertaera baten edo gehiagoren ondorioz, eta horrek etorkizuneko eskudiru-fluxu zenbatetsiak murriztea edo atzeratzea eragiten duela, zordunaren kaudimengabeziaren ondorioz.

Aktibo finantzario horien balio-narriaduragatiko galera liburuetaan duten balioaren eta etorkizuneko eskudiru-fluxuen balio eguneratuaren arteko diferentzia da, hala badagokio, ustez sortuko dituzten berme errealak eta pertsonalak gauzatzetik datozenak barne, hasieran kontabilizatzean kalkulaturako interes-tasa efektibora deskontatuta.

Narriaduragatiko balio-zuzenketak eta itzulketak, galera horren zenbatekoa ondorengo gertaera batekin lotutako arrazoiengatik murrizten denean, gastu edo sarrera gisa kontabilizatuko dira, hurrenez hurren, galdu-irabazien kontuan. Narriaduraren itzulketak aktiboaren kontabilitate-balioa du mugatzen, balio-narriadurarik erregistratu izan ez balitz lehengoratzeko-datan aitortuta egongo litzatekeena.

b) Aktibo finantzarioen baja

Fundazioak baja ematen die aktibo finantzarioei dagokion aktibo finantzarioaren eskudiru-fluxuen gaineko eskubideak amaitzen direnean edo laga direnean eta bere jabetzari datzekion arriskuak eta onurak



AÑANAKO GATZ HARANA FUNDAZIOA
FUNDACIÓN VALLE SALADO DE AÑANA

funtsean transferitu direnean. Kobratu beharreko kontuen kasuan, oro har, kaudimengabezia- eta berandutze-arriskuak transmititu badira gertatzen dela ulertzen da.

Aktibo finantzarioari baja ematen zaionean transakzio-kostu egozgarrietatik jasotako kontraprestazio garbiaren eta aktiboaren kontabilitate-balioaren arteko aldeak gehi zuzenean ondare garbian kontabilizatu den edozein zenbateko metaturen arteko aldeak zehazten du aktibo horri baja ematean sortutako irabazia edo galera, eta hori aktiboaren ekitaldiko emaitzaren parte da.

Aitzitik, Fundazioak ez die baja ematen aktibo finantzarioei, eta jasotako kontraprestazioaren zenbateko bereko pasibo finantzarioa aitortzen du bere jabetzari datxezkion arriskuak eta mozkinak funtsean atxikitzen diren aktibo finantzarioen lagapenetan.

c) Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk

Egoera-balantzearen erantsitako epigrafe honetan kutxa edo bankuetan dagoen eskudirua, ageriko gordailuak eta berehala burutu daitezkeen likidezia handiko eta hiru hil baino gutxiagoko epemuga duten epe motzerako eragiketak, balioa aldatzeko arriskurik ez daukatenak, daude jasota.

4.4.2.- Pasibo finantzarioak

Pasibo finantzarioak, balioesteko, kategoria hauetakoren batean sartzen dira:

a) Kostu amortizatuko pasibo finantzarioak

Kategoria honen barruan pasibo finantzario guztiak sailkatzen dira, galdu-irabazien bidez arrazoizko balioan balioetsi behar direnean izan ezik. Oro har, kategoria honetan sartzen dira merkataritza-eragiketengatik zorrak eta eragiketa ez-komertzialengatik zorrak. Mailegu arrunt edo komun baten ezaugarriak dituzten partaidetza-maileguak ere kategoria honetan sartuko dira, eragiketa zero interes-tasan edo merkatutik beherako interes-tasan adostearen kalterik gabe.

- Hasierako balorazioa: hasieran arrazoizko balioan balioesten dira, eta kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezioa da, hau da, jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioa, zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuen arabera doituta. Hala ere, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten eta kontratuzko interes-tasarik ez duten merkataritza-eragiketengatik zorrak eta partaidetzen gainean hirugarrenek eskatutako ordainketak –horien zenbatekoa epe laburrean ordaintzea espero da– balio nominalaren arabera balora daitezke, eskudiru-fluxuak ez eguneratzearen eragina esanguratsua ez denean.

- Ondorengo balorazioa: kostu amortizatuan egiten da. Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuz. Hala ere, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten zorrak, baldin eta, aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera, hasieran balio nominalen balioesten badira, zenbateko horretan balioesten jarraituko da.

b) Pasibo finantzarioen baja

Enpresak pasibo finantzario bati edo horren zati bati baja emango dio betebeharra iraungi denean, hau da, ordaindu, kitatu edo iraungi denean.


4.4.3.- Emandako eta jasotako fidantzak

Betebehar jakin batzuen berme gisa eratutako gordailuak edo fidantzak benetan ordaindutako zenbatekoan balioesten dira, arrazoizko balioaren alde handirik gabe.

Errentamendu operatiboen edo zerbitzuak ematearen bidez emandako edo jasotako fidantzetan, arrazoizko balioaren eta ordaindutako zenbatekoaren arteko aldea errentamenduaren edo zerbitzua ematearen ordainketa edo kobrantza aurreratutzat hartzen da, eta errentamenduaren aldian edo zerbitzua ematen den aldian galdu-irabazien kontura egozten da, salmentengatik eta zerbitzuak emateagatik sarrerei buruzko arauaren arabera.

Fidantzen arrazoizko balioa zenbatestean, hitzemandako gutxieneko kontratu-epea hartzen da gerakintzat, eta epe horretan ezin izango da fidantzen zenbatekoa itzuli, itzulketaren portaera estatistikoa kontuan hartu gabe.

Fidantza epe laburrerakoa denean, ez da beharrezkoa eskudiruaren fluxuen deskontua egitea, haren eragina esanguratsua ez bada.



AÑANAKO GATZ HARANA FUNDAZIOA
FUNDACIÓN VALLE SALADO DE AÑANA

4.4.4.- Arrazoizko balioa

Arrazoizko balioa aktibo bat saltzeagatik jasotzen den prezioa da, edo balorazio-datan merkatuko parte-hartzaileen artean antolatutako transakzio baten bidez pasibo bat transferitzeko edo ezeztatzeak ordaintzen dena. Arrazoizko balioa zehazteko, ez da inolako kenketarik egin behar besterentzeagatik edo beste bitarteko batzuk erabiltzeagatik egin daitezkeen transakzio-kostuengatik. Ez da inola ere arrazoizko balioetat hartuko transakzio behartu, presazko edo nahi gabeko likidazio-egoera baten ondorio dena.

Oro har, arrazoizko balioan balioetsitako finantza-tresnen balorazioan, sozietateak merkatuko balio fidagarri bati erreferentzia eginez kalkulatu du hura, eta arrazoizko balio horren erreferentziarik onena merkatu aktibo batean kotizatutako prezioa da. Merkatu aktiborik ez duten tresnen kasuan, balorazio-ereduak eta -teknikak aplikatu lortzen da arrazoizko balioa.

Merkataritzako eragiketengatik kredituen eta zorren liburu-balioa arrazoizko baliora hurbiltzen dela onartzen da.

4.5.- Izakinak

Izakinak eskurapen-prezioan (edo ekoizpen-kostuan) balioesten dira. Hau da eskurapen-prezioa: hornitzaileak fakturatutako zenbatekoa, zordunketen nominalari gehitutako interesak eta deskontuak kenduta eta izakinak salmentarako kokatuta egoteko gastu gehigarriak (garraioa, muga-zergak, aseguruak eta eskurapenari egotz dakizkikeen beste batzuk) gehituta. Ekoizpen-kostuari dagokionez, izakinak balioeste aldera, lehengaien eta beste gai kontsumigarri batzuen eskurapen-kostuari gehitzen zaizkio produktuari zuzenean egotzi ahal zaizkion kostuak, baita produktuei zeharka egotzi ahal zaizkien kostuei arrazoiz dagokien zatia ere.

FIFO metodoa erabiltzen du Fundazioak, kudeaketarako egokiena dela uste duelako.

Izakinak zamatzen dituzten zeharkako zergak ogasun publikotik zuzenean berreskuratu ezin direnean soilik gehitzen zaizkio eskurapen-prezioari edo ekoizpen-kostuari.

Fundazioaren izakinek saltzeko moduan egoteko urte bat baino gehiago behar izaten ez dutenez, ez da finantza-gasturik barne hartzen eskurapen-prezioan (edo ekoizpen-prezioan).

Izakinen balio garbi bihurtzeko eskurapen-prezioa (edo ekoizpen-kostua) baino baxuagoa denean, beharrezko balioespen-zuzenketak egiten dira eta gastu gisa aitortzen dira emaitzen kontuan. Izakinen balioaren zuzenketa eragin zuen egoerak halakoa izateari uzten badio, zuzendu den zenbatekoa itzuli egiten da eta sarrera gisa aitortzen da emaitzen kontuan.

4.6.- Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak:

Fundazioak lankidetzat-hitzarmenak ezarri eta dirulaguntzak jasotzen ditu proiektu jakin batzuk finantzatzeko. Diru-sarrerari egotze aldera, proiektu horiek gauzatzeko egindako kostuen ehunekoa eta emandako zenbatekoa hartzen dira kontuan, emandako zenbatekoa kobratzeke egon arren. Hala ere, horretarako, dirulaguntza emateko eskatzen diren baldintzak beteta eduki behar dira edo, hala badagokio, ez da etorkizunean betetzeari buruzko arrazoizko zalantzarik egon behar.

Emateko ezarritako baldintzak bete gabe dituzten emandako dirulaguntzak balantzearen pasiboan erregistratzen dira, "Dirulaguntza bihurtzearen zorrak" izenpean.


4.7.- Langile gastuak:

Langile gastuak une bakoitzean sortutako derrigorrezko edo borondatezko hartzeko eta betebeharrak guztiak hartzen dituzte barne eta aparteko ordainsariengatik, oporregatik edo hartzeko orokorregatik eta haiei lotutako gastuengatik betebeharrak onartzen dituzte.

Indarreko lan-legeriaren arabera, langileei kalte-ordainak ordaindu behar zaizkie nahitaez, justifikaziorik gabe kaleratuak badira. Ez dago kontzeptu horregatik hornidura bat kontabilizatu behar izateko arrazoi objektiborik.

4.8.- Sozietateen gaineko zerga:

Fundazioak 16/2004 Foru Arauari, irabazi asmorik gabeko erakundeentzako zerga-araubideari eta



AÑANAKO GATZ HARANA FUNDAZIOA
FUNDACIÓN VALLE SALADO DE AÑANA

mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzkoari, egiten dio men. Beraz, bere xede edo helburu zehatza betetzeko garatutako ustiapen ekonomikoetatik datozen errentak sozietateen gaineko zergatik salbuetsita daude.

4.9. Diru-sarrerak eta gastuak:

- *Alderdi komunak.*

Erakundeak emandako laguntzak ematea onartzen den unean aitortzen dira.

Erabiltzaileen edo afiliatuen kuotak diru-sarrera gisa aitortzen dira, dagokien aldian.

Baliabideak, babesleak eta lankidetzak lortzeko sustapenetatik eratorritako diru-sarrerak kanpainak eta ekitaldiak gertatzen direnean aitortzen dira.

Erakundeak bere jardueraren ohiko garapenagatiko diru-sarrerak bezeroekin hitzarturiko ondasunen edo zerbitzuen gaineko kontrola besterentzen denean aitortzen ditu. Une horretan, erakundeak diru-sarrera zenbatetsiko du ondasun edo zerbitzu horien truke eskubidez jasotzea espero duen kontraprestazioaren zenbatekoaren arabera.

Elementu homogeneoen trukeetan ez da diru-sarrerarik aitortzen, hala nola amaitutako produktuen trukeetan, edo bi erakunderen arteko salgai trukagarrietan produktua beren bezeroei emateko merkataritza-lanean eraginkorrak izateko helburuz.

- *Aitorpena.*

Erakundeak kontratu batetik eratorritako diru-sarrerak hitzarturiko ondasun edo zerbitzuen gaineko kontrola (hau da, betebeharra edo betebeharrak) bezeroari besterentzen zaionean (edo besterendu ahala) onartzen ditu.

Ondasun edo zerbitzu baten (aktibo baten) kontrola ondare-elementu horren erabilerari buruz erabat erabakitzeke eta haren gainerako onura guztiak funtsean eskuratzeko gaitasunarekin lotuta dago. Kontrolaren barruan, beste erakunde batzuek aktiboaren erabileraren gaineko erabakiak hartzea eta haren etekinak eskuratzeko eragozteko gaitasuna dago.

Identifikatutako betebeharrak bakoitzerako (ondasunak ematea edo zerbitzuak ematea), erakundeak kontratuaren hasieran erabakitzen du hartutako konpromisoa denboran zehar edo une jakin batean beteko den.


Denboran zehar betetzen diren konpromisoetatik eratorritako diru-sarrerak (oro har, zerbitzuak ematek edo ondasunak saltzetik datozenak) kontratu-betebeharrak erabat betetzeko bidean eginiko aurrerapen-mailaren arabera aitortzen dira, betiere erakundeak aurrerapen-maila neurtzeko informazio fidagarria badu.

Erakundeak aitortu beharreko diru-sarreraren zenbatespenak bere gain hartutako konpromisoa bete ahala berrikusten eta, beharrezkoa bada, aldatzen ditu. Berrikuspen horiek egin beharrak ez dakar berekin, nahitaez, eragiketaren amaiera edo emaitza fidagarritasunez estimatu ezin izatea.

Data jakin batean erakundea ez denean gai betebeharraren betetze-maila zentzuz neurtzeko (adibidez, kontratu baten lehen etapetan), konpromisoa betetzeko izandako kostuak berreskuratzea espero badu ere, diru-sarrerak eta dagokion kontraprestazioa data horretara arte izandako kostuen zenbateko baliokidearen arabera baino ez dira aitortzen.

Une jakin batean betetzen diren kontratu-betebeharren kasuan, horiek gauzatzearen ondoriozko diru-sarrerak egun horretan aitortzen dira. Egoera hori gertatu arte, produktuaren (ondasunak edo zerbitzuak) ekoizpenean edo fabrikazioan izandako kostuak izakin gisa kontabilizatzen dira.

Aldez aurretik salmentagatik edo zerbitzuak emateagatik diru-sarrera gisa aitortutako kreditu-eskubidea kobratzeari buruzko zalantzak daudenean, narriaduragatik galera narriaduragatik balioa zuzentzeko gastu gisa erregistratuko da, ez diru-sarrera txikiago gisa.



AÑANAKO GATZ HARANA FUNDAZIOA
FUNDACIÓN VALLE SALADO DE AÑANA

- *Betebeharra denboran zehar betetzea.*

Erakundeak aktibo baten gaineko kontrola (oro har, zerbitzu edo produktu batena) denboran zehar besterentzen duela ulertzeko, irizpide hauetako bat behar da:

a) Bezeroak aldi berean jasotzen eta kontsumitzen ditu erakundearen jarduerak (normalean, zerbitzu bat ematea) ematen dizkion onurak, erakundeak hura garatu ahala, behin eta berriz baliatzen diren zerbitzu batzuetan gertatzen den bezala (segurtasuna edo garbitasuna). Kasu horretan, beste enpresa batek kontratua bere gain hartuko balu, ordura arte egindako lana ez luke funtsean berriro egin beharko.

b) Erakundeak aktibo bat (ukigarria edo ukiezina) sortu edo hobetu eta bezeroak jarduera garatu ahala kontrolatzen du (adibidez, bezeroaren lursail batean eginiko eraikuntza-zerbitzu bat).

c) Erakundeak aktibo espezifiko bat egiten du bezeroarentzat (oro har, zerbitzu edo instalazio tekniko konplexua edo zehaztapen bereziak dituen ondasun zehatza), bestelako erabilerarik ez duena, eta erakundeak ordura arte gauzaturiko jardueragatik kobratzea eskatzeko eskubidea du (esaterako, bezeroarentzako iritzi profesionala dakarten aholkularitza-zerbitzuak).

Aktiboaren gaineko kontrola ez bada denboran zehar besterentzen, erakundeak diru-sarrera une jakin batean betetzen diren betebeharretarako ezarritako irizpideei jarraikiz aitortzen du.

- *Betebeharraren betetzea une jakin batean ezartzeko adierazleak.*

Bezeroak aktiboaren (oro har, ondasun bat) gaineko kontrola zein une zehatzetan eskuratu duen jakiteko, erakundeak adierazle hauek hartzen ditu kontuan, besteak beste:

a) Bezeroak bere gain hartzen ditu aktiboaren jabetzari datxzekion arrisku eta onura esanguratsuak. Puntu hau ebaluatzean, erakundeak baztertu egiten du aktiboa besterentzeko konpromisoaz bestelako betebeharrak bereizi bat sortzen duen edozein arrisku. Esate baterako, baliteke erakundeak aktiboaren gaineko kontrola besterendu izana, baina aktiboaren balio-bizitzan mantentze-zerbitzuak emateko betebeharra bete gabe.

b) Erakundeak aktiboaren jabetza fisikoa besterendu du. Halere, litekeena da jabetza fisikoa eta aktibo baten gaineko kontrola bat ez etortzea. Adibidez, berrerosteko akordio eta gordailu-akordio batzuetan, bezeroak edo gordailuzainak aktiboaren edukitza fisikoa izan dezake, baina haren gaineko kontrola aktiboa laga duen erakundeak dauka; ondorioz, aktiboa ezin da besterendutzat jo. Fakturazio osteko entrega-akordioetan, aldiz, erakundeak aktiboaren edukitza fisikoa izan dezake, baina bezeroak kontrolatzen du.


c) Bezeroak kontratu-zehaztapenen arabera jaso (onartu) du aktiboa. Enpresa batek modu objektiboan frogatzen badezake ondasunaren edo zerbitzuaren gaineko kontrola adostutako zehaztapenen arabera besterendu zaiola bezeroari, honen onarpena formaltasun hutsa izango da eta ez du eraginik izango kontrolaren besterentzeari buruzko erabakian. Adibidez, onarpen-klausula zehaztutako tamaina- edo pisu-ezaugarriak betetzean oinarritzen bada, erakundeak irizpide horiek bezeroaren onarpenaren berrespena jaso aurretik bete diren zehatz lezake.

Dena den, erakundeak ezin badu modu objektiboan frogatu bezeroari emandako ondasunak edo zerbitzuak kontratuan adostutako zehaztapenak betetzen dituela, haren onarpena jaso arte ezin izango du ondorioztatu bezeroak kontrola eskuratu duenik.

Bezero bati produktuak (ondasunak edo zerbitzuak) probaldi- edo ebaluazio-erregimenean ematen zaizkionean eta hark kontraprestazioa ordaintzeko konpromisoa ez duenean probaldia amaitu arte hartzen, produktuaren gaineko kontrola ez zaio besterenduko harik eta onartu edo bere desadostasuna jakinarazi gabe aipatu epea amaitu arte.

d) Erakundeak aktiboa besterentzeagatik kobrantza-eskubidea du.

e) Bezeroak aktiboaren jabetza du. Alta, erakundeak jabetza-eskubideari bezeroaren ez-betetzetik babesteko bakarrik eusten dionean, bezeroari ez dio eragotziko aktiboaren gaineko kontrola eskuratzeari.



AÑANAKO GATZ HARANA FUNDAZIOA
FUNDACIÓN VALLE SALADO DE AÑANA

- *Zenbatespena.*

Ondasunak saltzetik eta zerbitzuak ematetik eratorritako diru-sarrera arruntak diruzko zenbatekoaren arabera zenbatesten dira, edo, hala badagokio, kontratutik eratorrita jasotako edo jasotzea espero den kontrapartidaren arrazoizko balioaren arabera; kontrakorik frogatu ezean, bezeroari besterendu beharreko aktiboetarako adostutako prezioa da, honako hauek kenduta: edozein deskonturen zenbatekoa, prezioan eginiko beherapena edo erakundeak eman ditzakeen antzeko beste partida batzuk, eta kredituen nominalari erantsitako interesak. Hala ere, kontratuzko interes-tasarik gabeko urtebeteko baino gutxiagoko epemuga duten merkataritza-kredituei erantsitako interesak jaso ahal izango dira, baldin eta diru-fluxuak ez eguneratzearen ondorioa ez bada esanguratsua.

Diru-sarreretan ez dira sartzen erakundeak ondasunak entregatzeko eta zerbitzuak emateko eragiketak zergapetzen dituzten zergak, hirugarrenek ordaindu beharrekoak, hala nola balio erantsiaren gaineko zerga eta zerga bereziak, ez eta hirugarrenen kontura jasotako zenbatekoak ere.

Erakundeak, diru-sarrera zenbatesteko orduan, kontraprestazio aldakorraren estimaziorik onena hartzen du kontuan, baldin eta oso litekeena bada aitortutako diru-sarreraren zenbatekoaren itzultze garrantzitsurik ez gertatzea, gerora kontraprestazio horrekin lotutako ziurgabetasuna desagertzen denean.

Arau orokorraren salbuespen gisa, lizentziak lagatzeko akordioekin lotutako kontraprestazio aldakorra, aktibo horien salmentetan edo erabileran partaidetza gisa, soilik aitortzen da honako egoera hau gertatu ostean (edo gertatu ahal) izanez gero:

a) Ondoren saldu edo erabili egin da; edo

b) Kontratuari jarraikiz erakundeak bere gain hartutako betebeharra, kontraprestazio aldakorraren zati bat edo hura osorik hartu duena, bete egin da (edo partzialki bete da).

4.10.- Ingurumena:

Fundazioaren jardueraren ohiko garapenak ingurumenean izan ditzakeen eraginak kentzeko, mugatzeko edo kontrolatzeko sistemak, ekipamenduak eta instalazioak erosteko gastuak ibilgetuan egindako inbertsioztzat hartzen dira.

Ingurumenarekin zerikusia duten gainerako gastuak, ibilgetuaren elementuak erostekoez bestelakoak, ekitaldiko gastutzat hartzen dira.

4.11.- Hornidurak eta kontingentziak:

Egoera-balantzearen datan dauden obligazioak, erakundearentzat ondare-kalteak sor litzaketen aurreko gertakarien ondorioz sortutakoak eta zenbatekoa eta kitatzeko unea zehaztugabeak dituztenak, egoera-balantzean erregistratzen dira hornidura gisa, sozietateak obligazioa kitatzeko ordaindu beharko duela uste den zenbateko probableenaren balio eguneratuan.


Betebeharra kitatzeko unean hirugarren batengandik jaso beharreko konpentsazioak ez du zorraren zenbatekoa gutxituko, hargatik eragotzi gabe erakundearen aktiboan kobratzeko eskubidea aintzatestea, baldin eta zalantzarik ez badago itzulketa hori jasoko dela, eta aktibo hori kontabilitatean erregistratutako obligazioa baino handiagoa ez den zenbateko batean erregistratuko da.

5.- IBILGETUA

5.1.- Ibilgetu ukiezina:

Fundazioak ez du ekitaldian narriaduragatiko balioespen-zuzenketarik erregistratu 2024 ekitaldiko urteko kontuen epigrafe honetan.

Hauek dira 2023 eta 2024 ekitaldietan ibilgetu ukiezinarekin kontuetan eta amortizazio metatuetan erregistratutako mugimenduak:



AÑANAKO GATZ HARANA FUNDAZIOA
FUNDACIÓN VALLE SALADO DE AÑANA

- Euroak -

Mugimenduak	Ikerketa	Nortasu korporatiboa, markak	Aplikazio informatikoak	Lagatako ondasunen gaineko eskubideak	Ibilgetu ukiezinaren aurrerakinak	Guztira
2023ko hasierako saldoa	300.037,17	139.383,09	93.548,64	175.440,00	0,00	708.408,90
Eransketak	30.067,78	3.180,00	895,00	194.435,51		228.578,29
Intsuldaketak						0,00
Kentzeak				-71.315,51		-71.315,51
2023ko amaierako saldoa	330.104,95	142.563,09	94.443,64	298.560,00	0,00	865.671,68
Amortizazio metatua, 2023ko hasierako saldo	178.374,25	83.387,11	78.820,22	85.328,41	0,00	425.909,99
